

ANOETA / Yolanda Arrieta. Idazlea eta literatura animatzailea

I. GARCIA

Irakurketaz gozatzen izeneko tailerra emango du Yolanda Arrietak (Etxebarri, Bizkaia, 1963) Anoetan, 0-5 urteko haurrei zuzenduta. Bihar amaitzen da izena emateko epea, udaletxean edo liburutegian.

Zer landuko da tailerrean?

Hiru saio izango dira. Lehenengoan literaturara hurbiltzea da asmoa, bigarrenetan poesia deskubritzea eta azkena kontatzeari, irakurtzeari, asmatzeari buruz. Asmoa ez da bakarrik informazioa ematea, gurasoek esatekoa dutena jasotzea ere.

Literaturara nola hurbildu gaitezke?

Liburuaren atzean kontatzeko eta entzuteko beharra dago eta horri garrantzi eman behar zaio. Elkarrekin egotea eta kontuak esatea oso garrantzitsua da eta hori egunerokotasunera eraman behar dugu.

Zer da deskubritu behar dena poesiatik?

Egun poesia liburu asko daude, baina badirudi poesiak beldurra ematen duela. Mitifikatu egin dugu eta beraz alendu gugandik. Poesiari buruzko saioan ahozko tradizioak jasotzen saiatzen naiz, ahokorapiloak, asmakizunak...

Hirugarren saioan nola kontatu azaltzen duzu.

Aurrean daukaguna behin ezagutuz gero, behin jakinez gero zer gustatzen zaion, hortik abiatu gaitezke kontatu beharrekoa nola egin dezakegun jakiteko. Nola hasi ipuin batetik, zer amaiera eman ditzakegun, kontatzeko eta irakurtzeko modu ezberdinak, letra gabeko irudiekin nola egin...

Egun gurasoak nahiko denbora egoten dira haurrekin?

Denetarik dago. Guraso asko lanpetuta bizi dira, denbora gutxi dute gustuko gauzak egiteko. Errealitatea hori izanda, haur txikiaren gurasoak ilusio handiarekin hurbiltzen dira tailerrera. Bestalde, informazio asko dago egun eta gurasoak pixka bat galduta sentitzen dira horren aurrean. Literatura plazereruntz bideratzea da gakoa.